

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Ikastetxeetarako joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko jardueretarako dirulaguntza-deialdiaren ebazpena

2020ko azaroaren 18an onetsi zuen Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza-kontseiluak ikastetxeetarako joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko jardueretarako dirulaguntza-deialdia.

2020ko abenduaren 7an argitaratu ziren Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza-kontseiluak ikastetxeetarako joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko jardueretarako 2020ko azaroaren 18an onetsitako dirulaguntza-deialdiaren oinarriak eta laburpena —ALHAOren 139.zk.—.

Dirulaguntza-eskabideak aurkezteko ezarritako epea bukatu ondoren (2021eko uztailaren 5ean), eskabideak aztertu ziren, eta dirulaguntza eskuratu ahal izateko galdatutako dokumentazioa erkatu eta egiaztatu.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko ebaluazio-organoak ebazpen-proposamen hau egin du, oinarrietan adierazitako hautaketa-irizpideei jarraiki:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN KOSTUA, GUZTIRA	DIRULAGUNTZARI DAGOZKION KOSTUAK	EMANDAKO DIRULAGUNTZA (EHUNEKO 50)
San Martin HLHI	278,91 euro	278,91 euro	139,46 euro
Amezti Txiki guraso elkarte-Zabalgana LHI	3.180,47 euro	3.180,47 euro	1.590,24 euro
Guztira			1.729,70 euro

Ikusirik Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren estatutuak —2006ko apirilaren 5eko ALHAO, 40. zk—, ikastegiko lehendakariak hauxe:

Ebatzi du

Ikastetxeetarako joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko jardueretarako dirulaguntza-deialdiari dagozkion kopuruak ordain daitezela onestea, Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko aurrekontuko 2021/110.1722.47106 partidaren kontura.

Ebazpen honek agortu egiten du administrazio-bidea, eta, beroren kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 14an

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakaria
ANA OREGI BASTARRIKA